

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4221

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 11koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusten eta aldatzen baita Decons Agurain SA sozietateari Aguraingo udal-mugartean (Araba) hondakin metalikoak berreskuratzeko eta birziklatzeko emandako ingurumen-baimen integratua.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen hasierako 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez (AAI00360), ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Decons Agurain SA sozietateak Aguraingo udal-mugartean (Araba) sustatzen duen hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko instalazioari, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren babesean (1/2016 LED, abenduaren 16koa, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

2.– 2015eko abenduaren 23an, Decons Agurain SAK aldaketa baten berri eman zuen: altzairu herdoilgaitza eta hari-kobre pobrea hondakin esteriletik bereizteko instalazio bat jartzea, baita aluminioa hondakin esterilaren parte den goma-hondakinetik bereizteko instalazio bat ere. 2016ko urtarrilaren 11n, organo honek ez-funtsezkotzat jo zuen eskatutako aldaketa.

3.– 2016ko martxoaren 11n, Decons Agurain SAK sortutako hondakin bat gehitzeko eskaera egin zuen; zehazki, erabiltzen ez diren pneumatikoak (HEZ kodea: 16 01 03). 2016ko martxoaren 18an, ez-funtsezkotzat jo zuen organo honek.

4.– 2016ko martxoaren 11n, Decons Agurain SAK hondakin ez-burdinazkoak (HEZ kodea: 19 10 02) kudeatzeko eskaera egin zuen, baita HEZ kodeak eta horien izenak egokitzea ere. 2016ko martxoaren 18an, ez-funtsezkotzat jo zuen organo honek.

5.– 2016ko abenduaren 1ean, Decons Agurain SAK aldaketa bat eskatu zuen: zarata-kontrolak hiru urtean behin egitea eta ur beltzen eta euri-uren isurketen kalitate-kontroletako zenbait parametro kentzea. 2017ko apirilaren 6an, organo honek justifikatutzat jo zituen zaratari eta ur beltzen analisiaren salbuespenari buruzko eskaerak, baina ez zuen salbuetsi euri-uretarako aurreikusitako parametroen analisiak egitetik, eta ez-funtsezkotzat jo zituen justifikatutako aldaketak.

6.– 2017ko ekainaren 20an, Decons Agurain SAK aldaketa bat eskatu zuen: materiala biltegiratzeko 12 box jartzea eta materialak bereizteko instalazio bat egitea. 2017ko uztailaren 26an, ez-funtsezkotzat jo zuen organo honek.

7.– 2017ko azaroaren 8an, Decons Agurain SAK aldaketa bat eskatu zuen: tarteko materiala eta produktu bukatua biltegiratzeko 3 box jartzea eta materialak bereizteko instalazio bat egitea (hari-prozesuko lerroa). 2017ko azaroaren 21ean, ez-funtsezkotzat jo zuen organo honek.

8.– 2018ko irailaren 18an eta 2018ko urriaren 24an, Decons Agurain SAK aldaketa batzuk eskatu zituen: kudeatzeko hondakin berri bat gehitzea IBIn; IBIn baimenduta dauden hondakin batzuen izena egokitzea, eta instalazioetan hobekuntzak egitea. 2018ko abenduaren 17an, ez-funtsezkotzat jo zuen organo honek.

9.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua aldatzea eskatzen ez duen aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen lehenengo solairuko aldagelak egokitzeko proiektua.

10.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko ekainaren 9ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua aldatzea eskatzen duen aldaketa ez-funtsezkotzat jo ziren aldaketa-eskaerak. Honako aldaketa hauek eskatu zituen enpresak: balorizatzeko hondakin berriak gehitzea; atmosferara igortzeko hiru foku berri jartzea; ur-mahai bat eta Trenso-Technik etxeko xurgatzaile bat sartzeara; zatiki finak biltzeko sistema mugikor bat jartzea; hidrokarburoen bereizgailuaren ordeaz azaleko jariatze-urak tratatzeko sistema bat jartzea, eta bi pabiloi berri eraikitzea.

11.– 2020ko azaroaren 23an, instalazioaren titularrak EAEko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2020_009 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Zabortegira eramatekoa zen HEZ 19 10 04 kodedun hondakinaren (zatikatze-frakzio arinak –fluff-light– eta hautsa, 19 10 03 kodean aipatutakoen desberdinak direnak) balorizazioa handitzean zetzan aldaketa.

12.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua aldatzea eskatzen duen aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen HEZ 19 12 09 kodedun hondakin ez-arriskutsua gehitzeko eskaera.

13.– 2021eko uztailaren 13an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Decons Agurain SAr: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko beste dokumentu batzuk.

14.– 2021eko uztailaren 30ean, ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen Decons Agurain SAK.

15.– Ikusi eta gero nahikoa zela aurkeztutako dokumentazioa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariak 2021eko irailaren 10ean eman zuen ebazpenaren bidez erabaki zuen jendaurrean jartzea, 30 lanegunez, ingurumen-baimen integratua emateko Decons Agurain SAK egindako berrikuste-eskaera, egoki irizten ziren alegazioak aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2021eko urriaren 6an.

16.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaitutakoan, ez zen alegaziorik aurkeztu.

17.– 2021eko azaroaren 5ean, instalazioaren titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2021_008 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Aldaketa horren bidez, kanpoko boxak «tetrack» motako hormigoizko horma mugikorrek estali nahi ziren.

18.– 2021eko azaroaren 11n, instalazioaren titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2021_009 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Aldaketa ura metatzeko biltegi bat instalatzean zetzan, suterik gertatuz gero 1. eta 2. eremuetan jarduteko.

19.– 2021eko azaroaren 17an, instalazioaren titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2021_010 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Aldaketa flotazio-prozesuko ura birzirkulatzean zetzan, 1. eremuko estolda-sarera isurketarik ez egiteko.

20.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko azaroaren 21eko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua aldatzea eskatzen duen aldaketa ez-funtsezkotzat jo ziren jakinarazitako aldaketak. Hona hemen zer eskatzen zuen enpresak: «3D xurgapena» txertatzea; IBIn jasota ez zeuden sortutako eta ekoiztako hondakin berriak eguneratzea; 3. eta 4. emisio-fokuei baja ematea; HEZ 16 01 hondakina kudeatzeko hondakintzat hartzea; flotazio-prozesua estaltzea; errotaren motorra aldatzea; HUAren deskribapena egokitzea eta X-izpien makina bat jartzea.

21.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2021eko abenduaren 2an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Osasun Sailari eta Aguraingo Udalari, eta, 2022ko martxoaren 7an, Uraren Euskal Agentziari.

22.– 2021eko abenduaren 23an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak txostena egin zuen, eta espedientean jaso da txosten horren emaitza.

23.– 2022ko otsailaren 21ean, instalazioaren titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2022_001 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Aldaketa plastikoak, flotatzeko gomak eta pneumatikoak birrintzeko lerro bat egitean zetzan aldaketa.

24.– 2022ko martxoaren 10ean, instalazioaren titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2022_002 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Enpresak eskatzen zuen 16 01 18 HEZ kodedun metal ez-burdinazkoak (aluminiozko hagunak) sortutako hondakintzat hartzea.

25.– 2022ko martxoaren 29an, instalazioaren titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinarazi zion aldaketa bat egin nahi zuela baimendutako instalazioan. Horretarako, AAI00360_MNS_2022_003 dokumentazioa erantsi zen, bertan justifikatzen baitzen aldaketa ez zela funtsezkoa. Honetan zetzan aldaketa: Faquir-Esteiner emisio-fokuari (F5 0100003761-5) baja ematea.

26.– 2022ko uztailaren 28an, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Decons Agurain SAren esku utzi zen espedientea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2007ko urriaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.

2.– 2008ko abenduaren 23an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako erregelamendua onartzen duena.

3.– 2011ko uztailaren 29an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

4.– 2012ko urtarrilaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera Kutsa Dezaketan Jardueretarako Instalazioak Arautzen dituenak.

5.– 2013ko urriaren 19an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

6.– 2013ko abenduaren 11n argitaratu zen 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

7.– 2014ko abenduaren 18an Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua onartu zen. Haren bidez, 2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztu zen; onartu zen, orobat, Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaria (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentariarekin bat etorritz.

8.– 2015eko otsailaren 21ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinei buruzkoa (TEEH). Bertan, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen kudeatzaileentzako betekizun eta baldintza tekniko batzuk ezarri ziren.

9.– 2015eko ekainaren 25ean onartu zen 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa.

10.– 2016ko abenduaren 31n Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

11.– Aipatutako testu bateginaren 26. artikuluan daude ezarrita baimena berrikusteko baldintzak. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jardura nagusiari dagozkion TEOen inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak ziurtatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusi direla eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu direla, eta instalazioak aipatutako TEO erreferentzia-agirien ondorio aplikagarriak betetzen dituela.

12.– 2018ko abuztuaren 17an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera (2018/1147/EB Erabakia).

13.– 2019ko urriaren 15ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua, zeinetan ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitaezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehen-tasun-mailakotzat sailkatuak–.

14.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu zen; beraz, Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren baldintzak egokitu egin behar ziren, ofizioz, indarreko araudi berrira, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

15.– 2020ko urtarrilaren 22an eta otsailaren 4an, hurrenez hurren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Agindua, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

16.– 2020ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilerara arautzea eta ingurumenean eragina duten jardueren EAeko erregistroa sortzea eta arautzea xede dituen irailaren 25eko 183/2012 Dekretua.

17.– 2020ko ekainaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena.

18.– 2021eko azaroan onartu zen Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Plana.

19.– 2022ko apirilaren 1ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 208/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, hondakinen alorreko berme finantzarioei buruzkoa.

Aipatutako legeria eta oro har zein berariaz gai honetan aplikagarri diren gainerako arau guztiak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-baimen integratua aldatzea eskatzen duen aldaketa ez-funtsezkotzat jotzea Decons Agurain SAK Agurainen (Araba) hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko jakinarazitako aldaketak; zehazki, 2020ko azaroaren 23an eta 2022ko otsailaren 21ean eta martxoaren 10ean eta 29an eskatutakoak.

Bigarrena.– Ingurumen-baimen integratua aldatzea eskatzen ez duen aldaketa ez-funtsezkotzat jotzea Decons Agurain SAK Agurainen (Araba) hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko jakinarazitako aldaketak; zehazki, 2021eko azaroaren 5ean, 11n eta 17an eskatutakoak.

Hirugarrena.– Berrikustea Decons Agurain SAri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpen bidez emandako ingurumen-baimen integratua (Aguraingo udal-mugartean –Araba– hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko jarduera gauzatzeko), Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakian azaltzen den baldintzetan.

Laugarrena.– Aldatzea Decons Agurain SAri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua (hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko jarduera gauzatzeko), eta, zentzu horretan, ebazpen horretako lehenengo, bigarren eta laugarren apartatuak ere aldatzea. Honela geratuko dira idatzita:

«Lehenengoa.– Decons Agurain SAri (helbidea: Aguraingo industrialdea, 9. partzela, Aguraingo udalerría, eta IFK: A01310861) ingurumeneko baimen bateratua ematea hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko instalaziorako, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 1. eranskineko 5.4.d) kategorian dago sartuta:

"5.4.– Hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko edo balorizatu eta deuseztatzeko instalazioak eguneko 75 tonatik gorako ahalmenarekin, baldin eta ondoren zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago biltzen badituzte, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Lege Dekretuan bildutakoak izan ezik:

d) Tratamendua hondakin metalikoen birringailuetan, hondakin elektrikoak eta elektronikoak, eta bititza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak eta horien osagarriak barne".

Instalazioak bi toki ditu Agurainen:

Aguraingo industrialdea, 9. lurtzia.

Instalazioak, orotara, 40.040 m²-ko azalera du. Horietatik 8.646 m² azalera estaliari dagozkio. Honako hauek daude bertan: bulegoen eraikina; pabiloi nagusia; zatikatutako materiala biltegitzeko, zatikatzeko-makinaren materialak metatzeko eta material hori kamioietan kargatzeko pabiloia; biltegitratutako material esterila estaltzen duen pabiloia (sasoi euritsueta herrestan eramatea eragozten du, eta, sasoi lehorretan, solido esekiak aireeratzea), eta flotazio-prozesuko pabiloia.

Gehienbat autoak desegiteko instalazioetatik datorren automobil deskontaminatuetako txatarra zatitzean, sailkatzean eta birziklatzean datza jarduera (kudeaketa-eragiketa: R12/R4).

Produktu bukatua (hondakin balorizatuak) sektore siderurgikorako (altzairutegi elektrikoak nagusiki) lehengai gisa erabiltzen da.

Erradioaktibitate-proba bat egiten da ibilgailu guztiak behar bezala deskontaminatuta daudela egiaztatzeko. Materialari adostasuna eman ondoren, palen bidez uhal garraiatzailean jartzen da, ibilgailua errota birrintzaileraino eramateko. Errotaren ahalmena 70-90 t/h-koa da.

Txatarrak eta burdinazko eta metal ez-burdinazkoak berreskuratzeko zatikatzailerak bat erabiltzen da; faseka banatuta dagoen sistema bat da, zeinetan lehengai hainbat osagaitan bereizten baita. Bloke konpaktuak zatikatzaileran sartzen dira, eta harri mekaniko batzuen bidez xehatzen dira. Zatikatzaileraren produkzio-ahalmena eguneko 1.000 tonakoa da.

Hurrengo fasean, metal ez-burdinazkoak eta plastikoen nahasketa xurgatze-tunel batetik igarotzen dira (xurgatze handia); bertan, materialak bereizten dira, eta pisutsuenak uhal garraiatzailean geratzen dira hurrengo faserako. 70.000 m³/h-ko xurgatze-potentzia duen errota baten bidez egiten da xurgatzea. Bereizgailuaren xurgatze-potentzia 100.000 m³/h-koa da.

Gero, elektroiman birakari batek altzairua eta metala bereizten ditu. Eskuz, kautxuak eta altzairuarekin batera azal daitezkeen motorren elementu elektrikoak bereizten dira. Altzairua ontzi batean kargatzen da, eta galdategi batera bidaltzen da.

Metalak xurgatze-fasetik igarotzen dira, eta, ondoren, flotazio-fasetik. Hortik ateratzen diren metal granulometratuak flotatzen geratzen dira, eta zatiki finak Trenso-Technik xurgatzailean doaz. Bertan garbitu egiten dira, eta, azkenik, Faquir-Esteiner lerroan sartzen dira. Flotazio-fasea 1.000 litroko upel batzuetan egiten da, uraren, magnetitaren eta ferrosilizioaren nahasketa batekin. Bertan, dentsitatearen arabera bereizten dira materialak; aluminioak flotatu egiten du, eta gainerako materialak dekantatu egiten dira. 4 bahe birakari daude magnetitak eta ferrosilizioak flotatu ondoren hondarrak garbitzeko.

Fluff-a (HEZ 19 10 04: material arinak –plastikoen, belakien, ehunen, poliuretanoaren, zuraren eta abarren nahasketa–), aurreko prozesuetatik sortzen den metal ez-burdinazkoen ehuneko txiki batekin, bahe batera doan tobera batean sartzen da, materiala tamainaren arabera bereizteko:

– Hondakin txikiak (HEZ kodea: 19 12 12) zaborteigira eramaten da.

– 3-60 mm-ko tamainakoa hiru granulometriko bahe birakarira igarotzen da. Bereizketa horren material txikiak Faquir lerroa igarotzen da; tartekoa 3 dimentsioko (3D) instalazioan tratatzen da (hiru zatitan banatzen du: metalen, plastikoen eta metal arinen eduki handiagoa), eta metalik gabeko zatiki lurrunkorrak balorizazio energetikora bideratzen dira.

Instalazioak X. izpien bidez kloro-edukia duen plastikoa bereizteko teknologia bat ere badu. Horrela, klororik gabeko plastikoa zementu-fabriketara eramaten da, balorizazio energetikoa egiteko.

Ekoizpen-prozesuan sortutako hondakin-urak (garbiketa-urak, kamioiak garbitzeko urak eta flo-taziotik datozenak) eta euri-urak bahe autogarbigarri baten bidez eramango dira, 468 l/s-ko emaria izan dezaten. Bahetu ondoren, 20 dekantazio-unitatetara igaroko dira, eta bakoitzak 8 m³-ko bolu-men erabilgarria izango du, 160 m³ guztira. Ondoren, bi ponpaketa-putzuetara iritsiko dira. Ponpa horiek hiru ponpaz osatuta egongo dira (bi ponpa lehenengo putzuan eta bat bigarrean), eta handik industrialdeko hondakin-uren saneamendu-sarera eramango dira.

Euri-sasoian ur guztiak bahetuko dira, eta lehenengo urak (euriaren lehen 10 minutuetakoak) hondakin-uren saneamendu-sarera bidaliko dira, ponpen funtzionamenduaren bidez, gai baitira 140 l/s-ko emaria husteko.

Jariatze-uretatik datozen gainerako urak bideratu egingo dira, eta euri-urak saneamendu-sarera bidaliko dira alde aurretik bahetu ondoren, diluzio-koefizientea oso handia baita.

Ur sanitarioak beste bide batetik eramaten dira, eta zuzenean industrialdeko biltodiarekin lotzen dira.

Industrialdearen sarera isuritako ura, ondoren, Aguraingo industrialdearen HUAN tratatzen da.

Galzar industrialdea, Harrikruz kalea 17.

"2. pabiloia" lurzatiaren azalera osoa 21.660 m²-koa da; gaur egun, partzelaren ekialdeko zatia urbanizatuta dago, eta bulegoen pabiloi bat dauka, 10.000 m²-koa, gutxi gorabehera; mendebaldeko zatia, berriz, zolatu eta urbanizatu gabe dago.

2. eremura aurreko prozesuetan tratatutako hiru material iristen dira: metal ez-burdinazko eta plastiko arinak xurgatze-lerrotik, eta 60 mm-tik gorako materialak eta plastiko eta metal arinak "hiru dimentsioko fluff-a" lerrotik.

"Zikoina" deituriko lerroan, 60 mm-tik gorako materiala bereizi egiten da, alde batetik, zementu-fabrikako balorizazio energetikora bideratutako zatiki lurrunkorren, eta, bestetik, metal ez-burdinazkoetan eta plastikoetan. Azken horiek eta "hiru dimentsioko fluff-a" lerroko 50/100 mm-ko plastiko eta metal arinak "2. putzura" eramaten dira. Urez betetako dentsatze-putzu bat da hori, eta bertatik lortzen dira dentsitate handiko polietilenoa (HDPE) eta polipropilenoa (PP), biltegitratzeko, eta metal ez-burdinazkoak (herdoilgaitza, aluminioa eta kobrea), gainerako plastiko astunekin batera, bereizgailuetan prozesatzeko (hainbat teknika eta langile espezializatu behar dira horretarako) eta ondoren saltzeko.

10/25 eta 25/50 tamainako plastiko eta metal arinak xurgatzaile txiki batetik igarotzen dira, eta, hala, bereizi egiten dira, alde batetik, balorizazio energetikora eramateko material lurrunkor txikiak (poliuretanoa, belakiak, ehunak eta zura), eta, bestetik, metal ez-burdinazko eta plastiko zurrunkak. Azken horiek "3. putzuan" sartzen dira. HDPE eta PP bereizten dira, eta aurreko zatikien box berean biltegitratzen dira. Metal ez-burdinazko eta plastiko astunak "Finder bikoitza" izeneko makinara igarotzen dira, eta, bertan, metalak (aluminioa, herdoilgaitza eta kobrea) ateratzen dira plastiko zurrunk astunen nahasketatik. Horiek "1. putzuan" prozesatzen dira, eta termoplastikoen bi familia lortzen dira: ABS (akrilonitrilo butadieno estirenoa) eta PS (poliestirenoa). Gainerako plastiko astunak talko-kargak, beira-zuntzak, plastiko konplexuak, kautxuak eta abar dira, eta aurreko plastikoekin nahasten dira, balorizazio energetikoa egiteko.

Bereizitako termoplastikoak 12 mm-ko xaflen errota baten bidez birrintzen dira, eta "4. putzuan" materialaren zikinkeria txikiak bereizten dira; zentrifugatzailean erori eta lehortu ondoren, turbina batek zikloi bateraino garraiatzen du, eta big-bag batean erortzen (1.000 kg-ko pisua du, gutxi gorabehera).

1. eremuan, halaber, sortutako flotatzeko gomak eta plastikoak birrintzeko lerro bat dago. Bertan, pneumatikoak ere birrintzen dira, 1. eremuko errotatik igaro ondoren.

Euri-urak eta gainazaleko jariatzetik datozen urak, sarera isuri aurretik, harea kentzeko prozesu batetik igarotzen dira, eta, ondoren, hidrokarburoen bereizgailutik. Azkenik, industrialdeko euri-uren saneamendu-sarera isurtzen dira.

Lurzatiaren mendebaldeko euri-uren saneamendu-sarean hidrokarburoen beste bereizgailu bat dago.

Hidrokarburoen bi bereizgailuetatik datozen urak andel batean biltegitratzen dira, gero lurzattia garbitzeko berrerabiltzeko, edo prozesatzeko uretan bertan.

Gainezkabide bat dago, gainazaleko jariatzetik datozen gainerako urak industrialdeko euri-uren saneamendu-sarera joan daitezen.

Bi tokietan sortutako hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak ekipamenduak mantentzeko eta instalazioa zaintzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Decons Agurain SA enpresaren jardueran teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira, honako BREF txosten europar honetan jasota daudenak:

– Hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera. 2018ko abuztua: TEO2, TEO3, TEO4, TEO5, TEO7, TEO8, TEO11, TEO14, TEO18, TEO19, TEO20, TEO22, TEO24, TEO25, TEO26, TEO28.

Bigarrena.– Decons Agurain SAK Aguraingo udal-mugardean (Araba) sustatu duen hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzeko jarduera ustiatzeko baldintza eta betekizun hauek ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru.

Gutxienez seihun mila euroko (600.000) erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, honako hauek estaliko dituenak: hirugarren pertsonari edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta leheneratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hileko kontsumo-prezioen indizearen (KPI) arabera handituta.

B) Ingurumen-arloko erantzukizuna.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetza eman dizkion datuetan aldaketarik badago, Decons Agurain SAK aldaketa horien berri emango du.

C) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala ezarriko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta hurrengo apartatueta ezarritakoari jarraituz:

C.1.– Hondakinak hartu, manipulatu eta biltegitratzeko baldintzak eta kontrolak.

Instalazioan balorizazioa egiteko onartzen diren hondakinak hurrengo apartatueta daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

2022ko irailaren 29a, osteguna

Lantegian tratatu beharrezkotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, operadoreak hondakin hori onartzeko eskabidea bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, onets dezan, eta, behar izanez gero, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzaztzaileen proposamena erantsiko da.

Hondakin jakin bat onartzea egiaztatu ondoren, Decons Agurain SAK onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio dokumentu horren titularrari, eta onarpen horren baldintzak ezarriko ditu bertan.

C.1.1.– Hondakin onargarriak.

Decons Agurain SAK Hondakinen Europako Zerrendako hondakin ez-arriskutsuak tratatu ahal izango ditu, epigrafe honekin: Aguraingo industrialdea, 9. lurtzia. Aipatutako zerrenda Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauan xedatutakoa betetzeko).

HEZ kodea	Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren deskribapena	Hondakinaren deskribapena
160103	Erabiltzen ez diren pneumatikoak	Erabiltzen ez diren pneumatikoak
160106	Bizitza baliagarriaren bukaeran dauden eta likidorik edo beste osagai arriskutsurik ez duten ibilgailuak	BBAIen paketea
		BBAI zizailatua
		VFU txapak
150104	Metalezko ontziak	Aluminiozko potoa, paketean (aluminiozko freskagarri-latak, paketean)
		Aluminiozko potoa, soltean (aluminiozko freskagarri-latak, soltean)
		Aluminiozko eta burdinazko potoa, paketean (aluminiozko freskagarri-latak, paketean)
		Aluminiozko eta burdinazko potoa, soltean (aluminiozko freskagarri-latak, soltean)
		Metalezko ontziak
160117	Burdin metalak	Motorrak
		Aluminiozko motor-kulata
		Motor nahasiak
		Aluminiozko motorrak
160118	Metal ez-burdinazkoak	
160119	EKlen plastikoa	
170401	Kobrea, brontzea, letoia	
170402	Aluminioa	
170403	Beruna	
170404	Zinka	
170405	Burdina eta altzairua	Zizailatu beharreko txatarra
		Oxibaketa
		Erraila
		Burdin metalak
170406	Eztainua	
170407	Metal nahasiak	
190102	Labe-hondoaren errautsetatik bereizitako burdinazko materialak	Erraustutako potoa, soltean (HHSen erraustegietatik datorrena)
		Erraustutako txatarra, soltean (HHSen erraustegietatik datorrena)
		Erraustutako potoa eta txatarra, soltean (HHSen erraustegietatik datorrena)
191001	Burdina- eta altzairu-hondakinak	Zatikatuak: burdina- eta altzairu-hondakinak

2022ko irailaren 29a, osteguna

HEZ kodea	Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren deskribapena	Hondakinaren deskribapena
191002	Hondakin ez-burdinazkoak	<p>Metaux a trier, flotaziorako (flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Metaux a trier, aireztapenerako (aireztatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Refus inducteur a trier (flotatzeko eta aireztatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Metaux a ventiler (aireztatzeko eta flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Metaux broyes ventiles (flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Metaux refus inducteur a trier (aireztatzeko eta flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Metaux refus inducteur a ventiler (aireztatzeko eta flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Metaux refus inducteur ventiles (flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Zorba (aireztatzeko eta flotatzeko metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Refus inducteur leger (aireztatzeko, flotatzeko eta "Titech" makinatarako metalak, zatikatzaileetatik datozenak)</p> <p>Fines a trier (tratatu beharreko material finak)</p> <p>RBA ALU (RBA aluminioa)</p> <p>Fils cuivre PAUVRE (kobre-haria)</p> <p>Ur-mahaiko gomak</p> <p>Flotatzeko material finak</p>
191202	Burdin metalak	<p>Paketea (txatarra arina, paketean)</p> <p>Presse cizaille (txatarra arina, zizailatua)</p> <p>Chapajo platin (txatarra arina, txapetan)</p>
191203	Metal ez-burdinazkoak	
191209	Mineralak (harea eta harriak)	
191212	Hondakinen tratamendu mekanikoan sortutako bestelako hondakinak (materialen nahasteak barne), 19 12 11 kodean aipatutakoen desberdinak direnak	<p>Lurrak ("refus ferraille"): EKlen zizailatze- eta ebakitze-eragiketetatik eta beste eragiketa batzuetatik datozen metalak dituztenak</p> <p>Ferraille a broyeur: EKlen zizailatze- eta ebakitze-eragiketetatik eta beste eragiketa batzuetatik datozen metalak dituztenak</p>
200140	Metalak	Xaflak

Galzar industrialdea, Harrikruz kalea 17.

HEZ kodea	Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren deskribapena	Hondakinaren deskribapena
16 01 03	Erabiltzen ez diren pneumatikoak	Pneumatikoak, 1. eremuko erroetatik igaro ondoren
16 01 19	Plastikoa	EKlen plastikoa
19 10 04	Zatikatzeko-fraczio arinak (fluff-light) eta hautsa, 19 10 03 kodean aipatutakoen desberdinak direnak	Plastiko eta metal arinak, 10/25, 25/50 eta 50/100 tamainakoak, 9. lurtatik tratamendu-eragiketetan bereizten direnak
16 01 03	Erabiltzen ez diren pneumatikoak	Pneumatikoen hondakinak, EKlen paketeak 1. eremuko erroetatik igaro ondoren

Instalazioan inola ere ez dira onartuko ebazpen honetan zehaztu ez diren hondakinak, ez eta hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, beste hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak ere.

Jasotako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztzen duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

Hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua arabera.

C.1.2.– Hondakinen sarreraren kontrola.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrol bat eraman beharko da, ebazpen honetako baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Kontrol horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, onartzeko parametro mugatzaile eta baldintzatzaileak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrola agiri batean erregistratuta geratuko da.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da alde aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onespina eta ebazpen honen H apartatuan adierazitakoa betetzea.

Hondakin bat onartzeko aukera egiaztatu eta gero, Decons Agurain SAK onarpenaren agiria bidaliko dio hondakinaren titularrari; bertan baldintzak ezarriko dira, eta, hondakina entregatzen ez bada, baita iraungitze-data ere. Horrez gain, hondakina onartzeko parametro mugatzaileak edo baldintzatzaileak jasoko dira, eta, hala badagokio, hondakin-partida bakoitza hartu aurretik aztertu beharreko parametroak.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen hondakinak lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen 2015eko martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena ere bete beharko da.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua arabera.

Unean uneko egoeraren ezaugarriei erreparatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen barruko hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta eta Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Planeko helburu estrategikoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Planaren helburu estrategikoetan ezarritakoaren arabera, hondakinak ebazpen honen babesean emandako onarpen-agiri baten kargura bidali aurretik, ingurumen-organo honek baliozkotu beharko du agiri hori. Ezingo da Decons Agurain SAK kudeatu beharreko hondakin arriskutsurik jaso alde aurretik onespina-agiria organo honek baliozkotzen ez badu. Baliozkotzea 15 eguneko epean egin beharko da, agiria jasotzen

denetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota, ez bada izan berariazko posizionamendurik, hura aldekoa dela ulertuko da. Baliozkotu beharreko onarpen-agirian, besteak beste, honako datu hauek jaso beharko dira: parametro mugatzaileak, hondakinen identifikazioa eta iraungitze-data, baldin eta hondakinik ez bada entregatzen.

Era berean, baldin eta hondakina onartzeko baldintzen jarraipena egitean ikusten bada baldintzak ez direla bete eta, beraz, partida ez dela onartu, berehala jakinarazpen bat bidali beharko zaio organo honi, posta elektronikoko bidez (ippc@euskadi.eus), honako hauen berri emanez:

- Ez onartzeko arrazoia.
- Zer proposatzen den: beste kudeaketa-bide bat ala hondakina bidaltzaileari itzultzea.
- Beste kudeatzaile bati bidaltzea proposatzen bada, nahitaezkoa izango da dagokion onarpen-agiria aurkeztea, betiere lekualdaketa egin aurretik.
- Ekoizleari itzultzen bazaio, kontrol- eta jarraipen-agiriko gorabeheren atalean jaso beharko da gertakari hori, eta lekualdaketa data eman.

Onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organari ere jakinarazi beharko zaio.

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Decons Agurain SAK hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide teknikoak eta giza baliabideak eskuragarri izan beharko ditu une oro.

Baimendutako HEZ kodea duen hondakin bat onartzerik ez badago, ezezko onarpen-agiria egin beharko da, hondakin hori kudeatzeko ezintasunaren arrazoiak azalduta.

C.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zolata iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko isurketak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz eramateko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Instalazioan, hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzeko, kontu handia izan beharko da, ez dadin gertatu emisio lausorik edo kontrolik gabekorik, edo bestela, emisio horiek ahalik eta txikiak izateko. Alde horretatik, garrantzitsua izango da ekipamenduen estankotasuna ziurtatzea.

C.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

a) Balorizatu beharreko hondakinak gordetzeko gehieneko epea bi urtekoa izango da.

b) Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihesak edo isuriak hartzeko gai direnak; gainera, biltegitratze-eremu bereziak izango dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

c) Euria sartzea eta haizeak herrestan eramatea saihesteko moduan egin beharko da instalazioan onartutako hondakinen biltegitratzea.

d) Hautsezko hondakinak eta ontziratutako gabe jasotakoak pabiloiaren barruan multzotan edo gelaxketan gordeko dira, tratamendua egiteko unea iritsi arte.

e) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixi-biatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gertatzen diren isurketak kanpora irten ez daitezzen. Bilketa-sistema horiek independenteak izan behar dute hondakin mota hauetarako: isuriren bat gertatu eta nahasiz gero, arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakartenetarako.

f) Hondakinak desagertu, galdu eta ihes eginez gero, berehala emango zaie gertatutakoaren berri Ingurumen Sailburuordetzari eta Aguraingo Udalari.

g) Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko beste egoera batzuetan, Decons Agurain SA enpresak C.1.1 apartatuan adierazitako hondakinen transferentzia-zentro gisa jardun ahal izango du, hondakinak kudeatzeko beste instalazio baimendu batera eramateko.

C.1.5.– Kudeatutako hondakinen datu-erregistroa.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Decons Agurain SA enpresak formatu fisiko edo telematikoko artxibo kronologiko bat eduki beharko du, eta bertan bilduko dira, hurrenkera kronologikoan, hondakinen kopurua, mota, jatorria, helmuga eta hondakinak tratatzeko metodoa, eta, hala badagokio, garraibidea eta bilketa-maiztasuna. Aipatutako fitxategi kronologikoan sartuko da, orobat, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa, eta bertan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

– Onartutako hondakinen jatorria (jatorria eta prozesua, enpresa sortzailea eta enpresa garraiolaria).

– Hondakin horien kantitateak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

– Hondakin-partida bakoitzaren onarpen- eta jasotze-datak.

– Onartu ez diren hondakin sortei buruzko datuak (jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, ez onartzeko arrazoiak eta beste norako bat, ordezeko aukera gisa).

– Biltegitratutako hondakinak instalazioko zer tokitan dauden.

– Hondakin sortak aurretik egokitzeko edo multzokatzeko eragiketak, datak, parametroak eta partida horiei buruzko datuak, hondakinen ondorengo helmuga eta sorta bakoitzari emandako HEZ kodea.

– Instalazioko kudeaketa-lanen datak edo azken kudeatzaile baimenduari bidalketa egin zaioneko, eta kudeatzaile horren identifikazio-datuak.

Ebazpen honetako C.1.2 apartatuan aipatutako kontrolen emaitzak apartatu honetan araututako erregistroan jasoko dira, eta baita Decons Agurain SA enpresak egiten dituen kontrasteko horiek ere.

Artxibo kronologiko hori gutxienez hiru urtez gordeko dute, eta urtero bidaliko diote Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, ingurumena zaintzeko dagokion urteko programaren barruan, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluekin bat etorriz.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegiatutako hondakinen eta hondakin kopuruaren zerrenda ere jasoko du, lantokian tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeko dauden hondakinena bai eta sortutako hondakinena ere.

C.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zabortegean deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante adierazgarriren bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, eta justifikatu beharko da aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

C.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

C.2.1.– Instalazioan tratatutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

C.1.1 apartatuan adierazitako hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegiatzeko baldintzak eta kontrolak eragotzi gabe, Decons Agurain SAK bermatu beharko du tratamendu-lerroetarako manipulazio eta tratamendu mekanikoko eragiketak zoladura iragazgaitz baten gainean egingo direla beti.

C.2.2.– Kudeatutako hondakinen bizitza-amaierarako bete beharreko baldintzak.

Kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, dagozkien adostasun-deklarazioak egin direla egiaztatu beharko da, Europako Kontseiluaren 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Erregelamendu horretan, txatar mota jakin batzuek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak finkatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.

Era berean, aipatutako arauaren I. eranskinean finkatutakoarekin bat ez datozen ezaugarriak dituzten kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, hondakin gisako kudeaketa egiaztatuko da, kudeatzaile baimendu baten dagokion onarpen-dokumentua aurkeztuta.

C.2.3.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

C.2.3.1.– Baldintza orokorrak.

Decons Agurain SAren instalazioaren ustiapenean, atmosferarako emisioek ezingo dituzte gainditu ebazpen honetan ezarritako muga-balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak bete beharko dituzte.

Prozesuan zehar atmosferara botatzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Emisio ez-konfinatuek ez dute arau orokor hori bete beharrik izango, horiek biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez bada, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen bada.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondoriozko efluenteez giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Efluente gaseosoak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik daudenaldiak.

Proiektuan aipatzen diren atmosferako kutsaduraren inguruko neurriak beti beteko dira, bereziki hautsa ez isurtzeko neurriak, hala nola agregakin multzoak ureztatzea edo bideak garbitzea.

Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Honako elementu hauek atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte: atala, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako erakunde batek egindako hasierako IKE txostena igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordezari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

C.2.3.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Decons Agurain SAren instalazioari (hondakin metalikoak berreskuratzea eta birziklatzea) B 09 10 09 06 (Txatarra edo gainerako hondakin metalikoak zatikatzeko edo birrintzeko makinak), B 09 10 09 02 (Hondakin ez-arriskutsuen balorizazio ez-energetikoa, eguneko 50 tonatik gorako ahalmena duena) eta C 09 10 09 51 (Biltegitratzea edo manipulazio-eragiketak gauzatzea, tartean, hondakin ez-metalikoak edo hondakin metaliko hautsezkoak nahastea, bereiztea, sailkatzea, garraiatzea edo txikiagotzea; material horien gaineko manipulazio-ahalmena ≥ 100 t/egun eta < 500 t/egun-ekoa izango da, eta hondakin arriskutsuena ≥ 1 t/egun-ekoa) kodedun jarduerak dagozkio, eta, hain zuzen, Atmosfera babesteko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan daude sartuta. Hori dela eta, honako foku hauek ditu:

Fokua	Kodea	Izena	Altuera (m)	Atala (m ²)	Katalogazioa	Jarduteko araubidea
1	0100003761-01	Errota birrintzailea	10	1,43	B 09 10 09 06	Sistematikoa
2	0100003761-02	Zikloia, instalazioa, metalen 2. bereizketa	5	0,12	C 09 10 09 51	Sistematikoa

Foku ez-sistematiko horietako bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzeraz pasako balitz, aldi bakoitzak ordubete baino gehiago iraunez, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

C.2.3.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira emisioen muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Emisioen muga-balioak
1	Partikulak guztira (PG)	5 mg/Nm ³
2	Partikulak guztira (PG)	5 mg/Nm ³

Baldintza hauekin lotuta daude balio horiek: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da. Ikusten bada emisio muga-balioen bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

C.2.3.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuaren C.2.3.2 azpiapartatuan ezarritako gorenko kotatik behera. Honako elementu hauek atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte: atala, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Emisio lausoak minimizatzeko helburuarekin, ihesak antzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

C.2.4.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

C.2.4.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: Hondakin metalikoak berreskuratu eta birziklatzea:

Isurgunea	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordenatuak
I1	Euri-urak eta prozesatuak	Aguraingo industrialdeko biltodia	X: 547867,54 Y: 4744024,37
I2	Ur beltzak	Aguraingo industrialdeko biltodia	X: 547863,57 Y: 4744025,7
I3	Biltegiatze-xafla garbitzeko euri-urak eta lixibiatuak	Galzar industrialdeko euri-uren sarea	X: 548569,54 Y: 4744279,97
I4	Ur beltzak	Galzar industrialdeko saneamendu-sarea – Udalaren HUA	X: 548583,50 Y: 4744277,13

C.2.4.2.– Isurketaren muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten den isurketaren parametroak honako hauek izango dira, bakoitzeko zehazten diren gehieneko mugekin:

Parametroak	Emisioen muga-balioak
pH, pH unitateak	6-10
SEG	700 mg/l
OEK	1000 mg O ₂ /l
OEB ₅	600 mg O ₂ /l
Amonioa	30 mg N-NH ₃ /l
Olioak eta koipeak	75 mg/l (olioak eta koipeak, guztira)
Detergente anionikoak	12 mg/l
Boroa	5 mg/l
Aluminioa	10 mg/l
Barioa	20 mg/l
Kadmioa	0,05 mg/l
Zinka	2 mg/l
Kobaltoa	200
Kobrea	0,5mg/l
Kromoa	0,15mg/l
Eztainua	10 mg/l
Burdina	10 mg/l
Manganesoa	2 mg/l
Nikela	0,5mg/l
Beruna	0,3 mg/l
Artsenikoa	0,05 mg/l
Selenioa	0,5 mg/l
Merkurioa	5 µg/l
Hidrokarburoen indizea (HI)	10 mg/l

Horrez gain, emisioen muga-balio hauek ezartzen dira 1. isurgunetik datorren efluentetik abiatutako ur hartzailearen masarako. Balio horiek betetzen diren ebaluatzeko, azken ingurune hartzaileara egindako isurketa ez ezik, eskualdeko hondakin-uren araztegi hartzailean murriztutako kutsadura ere hartuko da kontuan:

2022ko irailaren 29a, osteguna

Parametroak	Emisioen muga-balioak
Hidrokarburoen indizea (HI)	10 mg/l
Artsenikoa (As)	0,05 mg/l
Kadmioa (Cd)	0,05 mg/l
Kromoa, guztira (Cr)	0,15 mg/l
Kobrea (Cu)	0,5 mg/l
Beruna (Pb)	0,1 mg/l
Nikela (Ni)	0,5 mg/l
Merkurioa (Hg)	5 ug/l
Zinka (Zn)	1 mg/l

Emisioen muga-balio hauek ezartzen dira 3. isurketa-puntuan:

Parametroak	Emisioen muga-balioak
Karbono organikoa, guztira	60 mg/l
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	180 mg/l
Solido esekiak, guztira (SEG)	60 mg/l
Hidrokarburoen indizea (HI)	10 mg/l
Artsenikoa (As)	0,05 mg/l
Kadmioa (Cd)	0,05 mg/l
Kromoa, guztira (Cr)	0,15 mg/l
Kobrea (Cu)	0,5 mg/l
Beruna (Pb)	0,1 mg/l
Nikela (Ni)	0,5 mg/l
Merkurioa (Hg)	5 ug/l
Zinka (Zn)	1 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurketaren muga-balioak lortzeko.

C.2.4.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

Ekoizpen-prozesuan sortutako hondakin-urak (garbiketa-urak eta kamioiak garbitzeko urak) eta euri-urak bahe autogarbigarri baten bidez eramango dira, 468 l/s-ko emaria izan dezaten. Bahetu ondoren, 20 dekantazio-unitatetara igaroko dira, eta bakoitzak 8 m³-ko bolumen erabilgarria izango du, 160 m³ guztira. Ondoren, bi ponpaketa-putzuetara iritsiko dira. Ponpa horiek hiru

ponpaz osatuta egongo dira (bi ponpa lehenengo putzuan eta bat bigarrenean), eta handik industrialdeko hondakin-uren saneamendu-sarera eramango dira.

Egungo flotazio-prozesuko urek berriz zirkulatzen dute, urak 1. eremuko estolderia-sarera isurtea eragotzita. Flotazio-prozesuko ura birzirkulatzen da, hondakin-uren isurketak hobetzeko.

Flotazioko ura dekantagailutik igarotzen da, andeletara joan aurretik; dekantatzen jarraitzen du, eta, azkenik, flotazioan birzirkulatzen da.

Euri-sasoian ur guztiak bahetuko dira, eta lehenengo urak (euriaren lehen 10 minutuetakoak) hondakin-uren saneamendu-sarera bidaliko dira, ponpen funtzionamenduaren bidez, gai baitira 140 l/s-ko emaria husteko.

Jariatze-uretatik datozen gainerako urak bideratu egingo dira, eta euri-urak saneamendu-sarera bidaliko dira aldeztu aurretik bahetu ondoren, diluzio-koefizientea oso handia baita.

Industrialdearen sarera isuritako ura, ondoren, Aguraingo industrialdearen HUAN tratatzen da.

C.2.5.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatzeko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoak bete beharko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira, euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren askotariko tipologiako hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitzako bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hau izango da hondakinak deuseztatzeko aukera bakarra: ezinezkoa izatea haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Birsortzea-berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, lehentasunez instalazio haietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortege baimenduan deuseztatzea dela aurreikusten bada, hondakinak karakterizatzeko, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideei ere.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitzako- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isurketak edo lixibatuak sortzeko arriskua badute, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gertatzen diren isurketak kanpora irten ez daitezzen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorriz: Hondakinen Europako Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da, eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta hura izapide-tzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu, galdu edo eskapatzen badira, berehala emango zaie gertatutakoaren berri Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Aguraingo Udalari.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorriz Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kause-tako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakin-arazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan hondakinak lekualdatzeari buruz ezarritako dagoena bete beharko da.

C.2.5.1.– Hondakin arriskutsuak.

Honako hauek dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak:

2022ko irailaren 29a, osteguna

HEZ	Hondakinaren deskribapena	Arrisku-ezaugarria	Kudeatzeko modua	Biltegiatze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
13 02 05	Olio erabiliak	H5/6	R9	Identifikatutako bidoia	Zerbitzu orokorrak	4.000
16 01 07	Olio-iragazkiak	H5/14	R13	Identifikatutako bidoia		Unean unekoa
16 02 13	Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak	H6/14	R13	Identifikatutako edukiontzia		Unean unekoa
16 06 01	Berunezko bateriak	H8	R13	Identifikatutako edukiontzia		Unean unekoa
20 01 21	Hodi fluoreszenteak	H6	R13	Identifikatutako kutxa		Unean unekoa
20 01 33	Metal astunak dituzten pilak	H6	R13	Identifikatutako edukiontzia		Unean unekoa
13 05 02	Olio-lohiak	H5	D13	Hondakinak kudeatzaile baimendunari ematea	Hondakin-uren tratamendua	2.000
13 05 07	Hidrokarburoak dituzten urak	H5	D13	Hondakinak kudeatzaile baimendunari ematea		4.000
15 02 02	Xurgatzaileak, iragazkiak eta zapiak (gai arriskutsuez kutsatutakoak)	H5	D15	Identifikatutako bidoia	Hondakinak elkartzea	100
15 01 10	Substantzia arriskutsuek kutsatutako metalezko ontziak	H5	R13	Big-bag identifikatua		Unean unekoa
15 01 10	Substantzia arriskutsuek kutsatutako plastikozko ontziak	H5	R13	Big-bag identifikatua		Unean unekoa
16 05 04	Substantzia arriskutsuek kutsatutako aerosolak	H5	R13	Plastikozko kutxa identifikatua		Unean unekoa

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera ezartzen dira, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarrizko beste batzuk, euren izaera dela eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Honako hauek zehazten dituzte: zer hondakin mota den eta nolako osagai arriskutsuak dituen. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeko eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2020 aldirako Ingurumeneko IV. Esparru Programan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinaren tratamendu-kontratuetan lagatze- edo deuseztatze-kodeak balorizatzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, isurketarik gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zailtzen den kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

d) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetez baino gehiagoz biltegitatu. Salbuespenezko kasuetan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko direla bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartzen dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenbizikoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Decons Agurain SAK onarpen-agiriak eta kontrol- eta jarraipen-agiriak edo haien baliokide diren agiri ofizialak erregistratu, eta artxiboan gorde behar ditu, hiru urtez, gutxienez.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraibideak betetzen dituela halako gaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Decons Agurain SA enpresak sortutako olio erabilia industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da.

i) Gailu elektrikoen eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak; besteak beste, lanpara fluoreszenteenak. Halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbuetsita egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, baita toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu, betiere. Toki-erakundeei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira, gutxienez.

j) Decons Agurain SAK, PCB eduki dezaketen gailuak dituen heinean, haiak egoki kudeatu daitezten, xedapen hauetan ezarritako eskakizunak bete behar ditu nahitaez: 1378/1999 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak deuseztatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta 228/2006 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, errege-dekretu hori aldatzen duena.

k) Decons Agurain SAK Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak –ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoak– adieraz-

ten dituen substantziak baditu, berreskuratu egingo dira, alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Decons Agurain SAK urtero adierazi beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, haien helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

m) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Decons Agurain SAK laburpen-memoria bat deklaratu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Memoria horretan, jaso beharko du zein den sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, eta zerrenda batean bildu beharko du zeintzuk dauden biltegiratuta aldi baterako deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

n) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluaekin bat etorriz, artxibo kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Artxibo hori hiru urtez gorde beharko da, gutxienez, eta urtero bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarriko printzipioetako bat betetzeko, alegia, mota horretako hondakin ahalik eta gutxien sortzeko, Decons Agurain SAK hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, lau urtetik behin, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatutako legea garatzen duen araudiak ez badu Decons Agurain SA hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

p) Decons Agurain SA Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea baldin bada, Decons Agurain SA ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, berau kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

q) Apartatu honetako f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta o) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronik bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanaz gero, Decons Agurain SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

C.2.5.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak honako hondakin ez-arriskutsu hauek aitortu ditu:

HEZ kodea	Hondakinaren izena	Zer prozesuri lotuta dagoen	Ekoizpen zenbatetsia (t/urte)
19 10 04	Zatitzearen zati arinak (fluff-light) eta hautsa, 19 10 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	Zatikatzailea	30.000
19 10 02	Hondakin ez-burdinazkoak		25.000
17 04 05	O.A // RAIL // FERRAILLE A CISAILLER (burdina eta altzairua)		2.000
17 04 07	Sortutako hondakin zatikatua		500
19 10 01	Burdina- eta altzairu-hondakinak		130.000
16 01 03	Erabiltzen ez diren pneumatikoak	Errota	1
16 01 19	Plastikoa		1.200
16 01 03	Erabiltzen ez diren pneumatikoak		1.000
19 12 04	Plastikoa eta kautxua	19 10 04 hondakinaren balorizazioa (2. pabiloia)	2.300
19 12 09	Harriak		3.000
19 12 10	Hondakin erregaiak		800
19 12 12	Lurrak eta finen nahasketak		12.000
08 03 13 08 03 18	Tonerrak	Bulegoak	17 kg
20 03 01	Zabor organikoa		200 kg
03 03 08	Papera		50 kg
16 01 18	Metal ez-burdinazkoak	BBAren haguak erostea	500
17 04 11	HEZ 17 04 10 kodean zehaztuta ez dauden kableak		2.000

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati.

b) Hondakin horiek deuseztatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegitatu. Hondakinen azken helburua balioztatzea denean, 2 urtez biltegitatu ahal izango dira.

c) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Decons Agurain SAK onarpen-agiriak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu, eta artxibategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

d) Hondakina zabortegian biltegitatuz gero, hondakin ez-arriskutsua eraman aurretik, kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da, hondakinak hondakindegian biltegitatuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzeari buruzko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari jarraikiz.

e) Balorizatzeko edo deuseztatzeko asmoz hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araberara.

f) Decons Agurain SA Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea baldin bada, Decons Agurain SA ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa egokia egitearen arduraduna da, eta, beraz, ontzi hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

g) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Decons Agurain SAK laburpen-memoria bat deklaratu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Memoria horretan jaso beharko du zein den sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, eta zerrenda batean bildu beharko du zeintzuk dauden biltegitratuta aldi baterako deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

h) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluaekin bat etorritik, artxibo kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Artxibo hori hiru urtez gorde beharko da, gutxienez, eta urtero bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

i) Apartatu honetako c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoen bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskaintako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

C.2.6.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen araberara, Decons Agurain SAK lurzorua babesteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu.

Bat etorritik ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuarekin, lurzoruaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen araberara.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde ezagun batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena

eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikulua 1.c) apartatuan ebatzen denari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurrak, obra-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa gauzatu bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da lurzoruaren kalitatea ikertzen eta oneratzeko egiaztatutako erakunde batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organismoak onartu beharko du hura exekutatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa gauzatuko duen kontratadunaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzattia eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, baita zolatak ere.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulua honetan aipatutako kasuetan, erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatutako batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, "Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan" jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoru-eta-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abendua-

ren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan ("Induskatu behar diren lurzoruetan in situ egindako laginketa") biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarriko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazioan bertan berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritako EBA-B (industria-erabilera) balioaren azpikoa; horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, lurzorua kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeke sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzorua kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-A ebaluazioko balio-adierazleak baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lursailetik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzorua arloko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurra- kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek hartu beharreko neurriak ezar ditzan, bat etorri aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuarekin, betiere.

C.2.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriko dira, indize akustiko hauek gainditu ez daitezten:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzetan barrualdean entzungo den $L_{Aeq, 60}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, ^{segundo} leihoak eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzetan barrualdean entzungo den $L_{Aeq, 60}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, ^{segundo} leihoak eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, apantailamenduak saihesteko behar den altuera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituren eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ($L_{Aeq,d}$, $L_{Aeq,e}$ eta $L_{Aeq,n}$) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq,T_i}). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneeetako zarata-maila.

D) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.– Atmosferara egiten diren emisioak kontrolatzea.

a) Decons Agurain SA enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, honako informazio honen arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Metodoak
1	0100003761-01	Errota birrintzailea	Partikulak, guztira	3 urte	UNE-EN 13284-1
2	0100003761-02	Zikloia, instalazioa, metalen 2. bereizketa	Partikulak, guztira	5 urte	UNE-EN 13284-1

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen bada, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

D.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua (Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarriko xedapenak finkatzen

dituena) eta abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina (Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituena).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

D.2.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, azterketa hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilararen UTM koordenatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna
IG1	Euri-urak eta prozesatuak	X: 547867,54 Y: 4744024,37	IH, OEK, KOG, SEG, As, Cd, Cr, Cu, Pb, Ni, Hg, Zn	Hilean behin
			PFOA, PFOS	Sei hilean behin
IG2	Ur beltzak	X: 547863,57 Y: 4744025,7	Industrialdeko saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoak	Saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoak
IG3	Biltegiaritze-xafla garbitzeko euri-urak eta lixibiatuak	X: 548569,54 Y: 4744279,97	IH, OEK, KOG, SEG, As, Cd, Cr, Cu, Pb, Ni, Hg, Zn	Hilean behin
			PFOA, PFOS	Sei hilean behin
IG4	Ur beltzak	X: 548583,50 Y: 4744277,13	Industrialdeko saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoak	Saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoak

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea bai azterketa, "lankidetzak-erakunde" batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten azterketa aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Isurketen kontrolen emaitzak hauei bidaliko zaizkie:

– Uraren Euskal Agentziari, laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, ebazpen honetako bigarren apartatuko D.6 azpiapartatua ezarritako epeak eta baldintzak betez.

d) Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti laginketak.

e) Isurketak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) letran ezarritako kontrol-parametro guztiak ebazpen honen bigarren zenbakiko C.2.4.2 azpiapartatua ezarritako mugak betetzen badituzte.

D.3.– Zarata kontrolatzea.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urterik behin: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i eta $L_{Aeq,60}$

segundo*

b) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoa betez. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztatzea eduki beharko du akustikaren arloan, espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

c) Ebaluazio-metodoak eta prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

D.4.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.4 azpiapartatuan eskatutako dokumentazioaren kalitatea izan gabe, hurrengo datu hauek aurkeztuko dira lurzoruarekiko afekzio berri baten aukera hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldiaren diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla eta lurzoruaren eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera –zolakak iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatila– ez ezik, larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela ere egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Ekipamenduak eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen dituen edo, hala badagokio, horietan hautemandako gabetasunak azaltzen dituen berariazko adierazpena izan beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioen adierazpena, halakorik badago, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduak dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide teknikoak onartzen du–, eta lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotuta, Decons Agurain SAK lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak ezaugarritzeko, ateratako lurzoru-zutabea ezaugarritzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa; hala, instalaziotik gorako eta beheko uren jarioa alderatu ahal izango da.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko, aurkeztu beharreko informazioa urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onartzen dituen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

D.5.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazleen segimendua egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programekin batera aurkeztuko du:

2022ko irailaren 29a, osteguna

Ingurumen-gaia	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Produktu bukatuak, guztira	t
Lehengaien eta osagarrien kontsumoa	Kontsumoa/ekoizpena	t/t
Energia elektrikoaren kontsumoa	Energia elektrikoaren kontsumoa/ekoizpena	kWh/t
	Energia elektrikoaren kontsumoa/energiaren guztizko kontsumoa	% (kWh/kWh)
Gasolio-kontsumoa	Gasolio-kontsumoa/ekoizpena	kWh/t
	Gasolio-kontsumoa/energiaren guztizko kontsumoa	% (kWh/kWh)
Partikulen emisioak, guztira (geh., gut., batezbestekoa, lagin kop.)/ 1,2 foku kontrolatua	Partikulen emisioak, guztira	mg/Nm ³
Partikula guztien emisioak, guztira	Partikula guztien emisioak, guztira	kg
	Partikula guztien emisioak, guztira/ekoizpena	kg/t
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa/ekoizpena	m ³ /t
Uretara eginiko isurketak	Euri-uren eta industria-uren isurketak/ekoizpena	m ³ /t
Hondakin arriskutsuak	Sortutako HAak/ekoizpena	t/t
	Balorizatutako HAK/sortutako HAK	% (t/t)
Hondakin ez-arriskutsuak	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak/ekoizpena	t/t
	Balorizatutako HEAak/sortutako HEAak	% (t/t)
Lurzoruaren kutsadura	Ezbeharrez gertatutako isurketekin zerikusia duten intzidentzia kopurua	Kop./urte
IKS	Ekoscan/ISO 14001/EMAS	Bai/Ez

D.6.– Emaizak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu beharko dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere. Hau da horretarako helbide elektronikoa: ippc@euskadi.eus

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaizak urtero bidaliko dira, beti martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen azterketa, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta eta haien kausa

eta konponbide posibleak azalduta; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik hala egin ez bada.

D.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiriategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiriategina egin beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduta. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, azterketa edo neurketen maiztasuna, laginketak eta azterketak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, egiaztatu ahal izateko adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna (ingurumen-adierazleak).

E) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta funtzionamendu-baldintzak.

E.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren isurketen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa gelditzean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak bigarren apartatuko C.2.5 azpiapartatuan ("Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak") ezarritakoari jarraituz kudeatu beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

E.2.– Jarduera bertan behera uztea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituena. Horrenbestez, Decons Agurain SAK jarduera uzte horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Decons Agurain SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuko C.2.5 azpiapartatuan ezarritakoa betez.

E.3.– Jarduera aldi baterako uztea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako emisioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Decons Agurain SAK, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa

jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketa edo emisio oro saihesteko.

E.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean zehaztuta dauden ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriez eta jardunerako baldintzez gain, hurrengo apartatuetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuzko isurketak edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzoria babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako biltodien sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen ikusizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzoria kutsa dezakeen egoera orori aurrea hartzeko.

Era berean, atmosfera eta ura kutsatzea prebenitzeko eta kutsatutakoa zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan sortutako soberako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioak behar bezala funtziona dezan. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura botako aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegei baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegitratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoak kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Instalazioek lohiak tratatzeko aukera izanez gero, horietatik hustutako ura berriro bideratu beharko da arazketa-instalazioaren sarrerara.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-ura bypass bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez bypass bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuta. Bypass horretan aurreikusi gabeko isurketa bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena Ingurumen Jasan-garritasuneko Sailburuordetzara bidalita (apartatu honetako j) letran adierazitakoari jarraituz).

b) Halaber, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu eskura, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta istripuzko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, fabrikari sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hauts-itxurako produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak izan beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegitratuko dira, halako baldintzetan ezen ezin izango baitira ingurunean sakabanatu.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratze-instalazioek eskakizun batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guztiak behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratze erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gertatzen diren isurketei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipamendu egokiak.

i) Ontzien hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura bat edukiko dute. Bertan, instalazioaren eraginkortasunari eragiten dioten isuriak instalaziora joatea saihestu beharko da.

j) Gorabeheraren bat izanez gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragiten dituen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere zuzenketa- edo euste-neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta arrazoiak (unean-unean zehazten direnak).
- Berehala aplikatutako zuzenketa- edo euste-neurriak.
- Sortutako ondorioak.
- Hala badagokio, epe laburrera aurreikusitako jarduketak.

Gorabehera edo arazo larriren bat edo ezusteko isuri edo emisioaren bat egonez gero, SOS Deiak eta Aguraingo Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

- Gorabeheraren iraupena.
- Istripuzko isurketa gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzematen den eragina zehaztu beharko dira, haren azterketa barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketen bat gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egiteko arriskua badu, titularrak berehala etengo du isurketa hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gertatzen diren gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko etenaldi programatu oro, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala eginarazten badigute, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai eta neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere.

Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da jardueraren sustatzaileak hala eskatzen badu edo ofizioz, oinarri hartuta ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzak.

G) E-PRTR jakinarazpena.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Decons Agurain SAK, aurreko urtean atmosferara eta uretara egindako isurketei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretua eta ingurumena zaintzeko programa betez.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

Ingurumen-adierazpena agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentzarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta

Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

H) Instalazioetan aldaketak egitea.

Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da aldezturik:

https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc

Organo horren onspena ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Industriako emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu.

Nolanahi ere, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutako irizpideei jarraikiz.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa egin aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

I) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), eta baliteke, ondorioz, aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea.

J) Ingurumen-arloko erantzukizuna.

Decons Agurain SA 3. lehentasun-mailako operadore gisa dago sailkatuta ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera. Agindu horren bidez ezartzen da, hain zuzen ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean aurreikusten diren eta APM/1040/2017 Aginduak aldatzen duen ministerio-aginduak onartzeko lehentasun-ordena eta egutegia.

Decons Agurain SAk bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea hein batean garatzeko araudia onartzen duena). Artikulu horren hirugarren puntuaren arabera, operadoreak ingurumen-arriskuen azterketa eguneratuko du egokituz jotzen duen guztietan, eta jardueran, instalazioan edo baimean funtsezko aldaketak egiten direnean.

Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzak eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako salbuespenei jarraikiz, jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita geratzen bada, agintaritzak eskudunari erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio, zeinetan IV.2 eranskinean jasotako informazioa jasoko baita gutxienez.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta komeni denean emisioen muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea.

b) Emisioak nabarmen murriztu badaitezke, teknika erabilgarri onenetan aldaketa handiak egi-tegatik gehiegizko kosturik sortu gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legerian ezarritakoaren arabera, irizten badio badirela ingurumen-baimen integratua berrikustea justifikatzen duten inguruabarrak, Estatuaren Administrazio Orokorrak kudeatzen dituen arroetako jabari publiko hidraulikora isurtzeari dagokionez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogeit hamar eguneko epean hasteko berrikuste-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legeriak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza garrantzitsu berrietara egokitu beharra badago; bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela hautematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, egiaztatzen bada ez direla nahikoak ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan ezarritakoarekin bat etorritik egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikustea ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

2022ko irailaren 29a, osteguna

Bosgarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Decons Agurain SA enpresari, Aguraingo Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 11.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.